



FORU ALDUNDIETAN HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA UDAL, FORU ETA AUTONOMIA ADMINISTRAZIOETAKO GAZTERIA, KULTURA ETA KIROL ZERBITZUEN ARTEKO ELKARLAN PROTOKOLOA

131/2008 DEKRETUA, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen Dekretuaren jarraibideak jarraituta landu da protokolo hau. Dekretuaren 10. artikuluan Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aipatzen da, honako hau gogorarazteko asmoz:

“Erakunde publikoek lankidetzan jardun behar izango dute eta beren jardunak koordinatu behar izango dituzte, haurrak eta nerabeak modu koherentean, antolatuan eta integrean zaintzeko, esku-hartzei eta baliabideak erabiltzeko arrazionalizazioari dagokienez ahalik eta eraginkortasun-maila handiena bermatuko duen zaintza, hain zuzen ere.”

Euskal herri-administrazioen artean koordinatzeko beharrari dagokionez, **12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak**, honako hau ezartzen du 43. artikuluan:

“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko koordinazio- eta lankidetzeta-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko.”

Betebehar horri jarraiki, eta elkarlan eta koordinazio eraginkorrak bermatze aldera, artikuluko bereko 2. puntuaren g) hizkiak dio haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta udal, foru eta autonomia mailan dauden gazteria, kultura eta kirol zerbitzuek lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa ezarri behar dela.

1. GAUR EGUNGO EGOERA

Identifikazio-agiririk ez daukaten bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrek ezin dute kultura-, kirol- eta gazteria-instalazio edo zerbitzurik erabili.

2. EGOERA ZEHATZA

Kultura-, kirol- eta gazteria-instalazioak edo zerbitzuak erabiltzea eskatzen duten baina identifikazio-agiririk aurkezten ez duten bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrei instalazio edo zerbitzu horiek erabiltzea eragozten zaie.

3. HELBURUA

Helburua prozedura komuna ezartzea da, Adingabekoen Kontseiluko ebazpena edo tutoretza edo zaintzaren foru-agindua nahikoa izan dadin tutoretzapeko adingabekoa identifikatzeko eta kultura-, kirol- eta gazteria-instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko baimen-eskaria izapidetu ahal izateko, bai eta adingabekoaren garapenerako interesgarria izan daitekeen eta bere baldintzak eta bizi-kalitatea hobeto ditzakeen edozer eskueran izateko ere, kulturaren, kirolaren eta gazteriaren arloko premiak asetzeko benetako aukera zabaltzen baitaio.

4.- PROPOSAMENA

- Jarraitu beharreko prozedura aktibatuko duen egoera

Inolako identifikazio-agiririk ez daukan bidaidetik gabeko adingabe atzeritar batek edozein udal-, foru- edo autonomia-instituziotako kultura-, kirol- eta gazteria-instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko eskaria egitea.

- Jarraitu beharreko prozedura

Edozein udal-, foru- edo autonomia-instituziotako kultura-, kirol- eta gazteria-instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko baimena emateko ardura duen pertsona orok jakin behar du Adingabekoen Kontseiluko ebazpena edo tutoretza edo zaintzaren foru-agindua babeseko egoitza-baliabide batean zaintza-egoeran dagoen adingabekoa identifikatzeko bideratu den agiria dela. Hain zuzen ere, agiri horrek kultura-, kirol- eta gazteria-instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko karneta, txartela edo baimena eskuratzeko bidea ematen dio, betiere adingabekoaren zaintza duen pertsonak aurkezten badu tutoretza- edo zaintza-ebazpen hori, adingabeko horren erantzukizuna duen instituzioaren izenean.

- Erabili beharreko formularioak

Instalazio bakoitzean instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeko baimena eskatzeko dauden formularioak.

Vitoria- Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 24a